

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, gure erabiltzaileen partaidetza ezinbestekoa denez, edozein gauza garatzeko erabiltzaile multzoa zein den jakitea beharrezkoa da. Hondartzen garbiketaren egitasmoa mundu guztiari zabaldua egon arren, ondorengo ezaugarriak dituzten pertsonengan jarriko dugu arreta berezia:

Hasiera batean, gure proiektua Gipuzkoako hiriburuko hondartzetan arreta jartzekoa izango da, hau da, Donostiako hondartzak izango dira gure garbiketaren helburu nagusia. Hori bai, Ondarreta, Kontxa nahiz Zurriola hondartzak garbi mantendu nahi ditugu. Donostiako bihotza bere hondartzak dira, eta hauek hondakin gabe ikusteak hondartzara joaten dituen pertsonak poztuko lituzke. Hori dela eta, gure bezero potentzialetako bat Donostiako biztanleak izango dira, hauek baitira hondartzak gehien erabiltzen dituztenak eta aldi berean gehien kutxatzen dutenak.

Egitasmoan izena emateko bete beharreko irizpidea 14 urte baina gehiago edukitzea da, izan ere, adin honetatik aurrera heldutasun maila handiago bat dute biztanleak, eta agian umeentzat eta adin goiztiarreko pertsonentzat arriskutsua izan daiteke hondakinak ahora eramateko arriskua dutelako.

14 urte baina gutxiago duten pertsonak parte hartu nahiko balute, hauek guraso, edo adinez gorako pertsona batekin joateko aukera dute, baina bakarrik ez, esan bezala arrisku bat izan daitekelako. Baina horrela, gazteak kontzientzitzen ditugu gurasoen edo helduen laguntzaz. Eta are gehiago kontzientziatzeko, honen harira, umeen talde handiak hondartza garbitzea joateko burutazioa izan dugu. Horretarako, ikastoletako ikasleak, LH 2.ziklokoak bereziki, astero Gipuzkoako ikastetxe batetik eramango genituzke Donostiako hondartzetara jardueran parte hartzeko eta aldi berean gure egitasmoari laguntzeko.

Aipatzekoa da gainera gure erabiltzaileek gure pentsaera berdina izan beharko luketela laguntzeko prest badaude, hau da, ingurunearekiko konpromezua azaldu beharko lukete eta hondakinak garbitzeko "motibazioa" erakutsi beharko ligukete. Hauen barnean adibidez surflariak sartu daitezke, egunero joaten baitira hondartzara eta haientzat garrantzitsua izango delako hondakin gabeko ingurunean surf egitea.

Bestalde, Donostiako talde ekologistak ditugu, zeinak funtsezko papera izango lukete egitasmoan. Hauek gure proiektua zabalduko dute eta jende gehiago bereganatuko dute garbiketarako. Gainera, talde hauek ingurumenarekiko konpromezu geldiezina dutenez, haien gogo guztiak jarriko dituzte garbiketara eta oso lagungarriak izango zaizkigu gure helburua betetzeko.



Gainera, gure erabiltzaile potentzialetako beste batzuk egoera ekonomiko zailetan dauden pertsonak izan daitezke. Hauek tasak ordaintzeko arazoak badituzte, guk parte-hartzaileei hondakinen gaineko tasa kentzea eskaintzen diegu; horrela ordaindu beharreko tasa bat gaineratik kenduko dute, ingurunearekiko laguntza sozial batean parte hartuz.

Hau kontuan izanik, talde guzti hauek bat eginez eta honen bidez hondartza garbituz kostaldera momentu atseginak igarotzera joaten diren pertsonen segurtasuna bermatu ahal izango dugu.